

## **FUNTSEZKO ELKARTEA**

Gure proiektua aurrera ateratzeko beharrezko dugu beste enpresa edo erakundeekin aliantzak egitea. Egia esan, ez dugu gure proiektura guztiz egokitzen den produkturik, baina, Micro-Hybrid Electronic GMBH enpresarekin harremanetan jarri ezker, gure proiekturako sentso-re egokienak aukeratzeko lagunduko lizkigukete eta hauek guri hornituko lizkigukete.

Bestalde, sentso-re hauek gurgilean atxikituta jarriko zaion zilindro bati lotuta egongo dira. Zilindro horiek lortzeko Xometry enpresa espainiarrarekin jarriko ginateke harremanetan. Enpresa hau material ezberdinez 3D formak inprimatzeaz arduratzen da eta honi esker bezeroek zilindroaren materiala zehatza aukeratu ahal izango dute, hauek beraien egoerara gehiago amoldatuz (material merkeagoz eginiko zilindroak eskatuz, garestiago baina gehiago irauten dutenez osatuak eskatuz...).

Guretzako bezeroak eta hornitzaileak izango lirateke garrantzitsuenak. Gure bezeroak oso talde murriztu batean sartzen dira, horregatik, hauek gabe ezinezkoa izango litzateke gure ideia aurrera ateratzea. Hornitzailei erreparatuz gero, oso behar zehatzei erantzuten dien enpresak direla ikus daiteke eta hauekin egindako aliantzak gauzatu ez baziren, oso zaila izango zen gure enpresa aurrera ateratzea.